

## Bueltan dira Haurtxotekak eta haurren artean irakurketa sustatzeko aurrez aurreko programak

*Urritik aurrera Haurtxotekak zabalduko dira eta Liburu Baby Kluba (0 eta 3 urte) eta Zeu irakurle, gu kontalari (6-8 urte) programak aurrez aurreko moduan itzuliko dira.*

Urriaren 1etik aurrera Donostia Kulturako liburutegi sarean irakurketaren zaletasuna baino haratago doazen bi jarduera aurrez aurreko moduan abiatuko dira: *Liburu Baby Kluba* eta *Zeu irakurle, gu kontalari*. Gainera urriaren 4tik aurrera ere 6 urtetik beherakoentzako liburutegiko guneak zabalduko dira berriz ere, *Haurtxotekak*.

### Haurtxoteka

Haurtxoteka euren guraso edo arduradunetz lagundutako 0 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako zerbitzua da. Helburua haurren irakurzaletasuna sustatzea da. Espazio eroso eta maileguan eraman daitekeen dokumentu-sorta eskaintzen da bertan. Adituen esanetan, egunero irakurketari 15 minutu eskaintzea nahikoa izaten da. Haurtxoen harreman goiztiarrak liburuekin irakurketaren inguruko jakin-mina eta gogoia sortzen laguntzen du. Era berean, helduen papera funtsezkoa da ohiturak eta irakurketarekiko une atseginak sortzeko eta haurra irakurtzeaz nekatu dela ikusten dutenean, liburutegiko denbora ez luzatzeko. Edukia mugatua izango da eta musukoaren erabilera gomendagarria da.

### Liburu Baby Kluba

0 eta 3 urte bitarteko umei zuzenduriko jarduera ludiko eta didaktikoa da. Umeak heldu batekin egongo dira eta azken honek jardueran ere parte hartuko du. Jardueraren ardatza eta abiapuntua liburua da. Helburu nagusia umeengan txikitatik eta beraien familiengan literatura, musika, artea eta naturarekiko interesa piztea da.

*Liburu Baby Kluba* Mestiza Elkartearekin batera antolatutako jarduera da. Kulturantzuna da eta horregatik, euskaraz, gazteleraz eta ingeleraz garatzen da. Doako jarduera astero eskeiniko da eta alde zuzenetik izena eman behar da. Honako liburutegi eta data hauetan izango da:

Astelehenetan: urriaren 4tik aurrera, Okendo, 10:30-11:00; Loiola 18:00-18:30.

Astearteetan: urriaren 5tik aurrera, Egia, 18:00-18:30.

Asteazkenetan: urriaren 6tik aurrera, Haur Liburutegi Nagusia, 10:30-11:00; Intxaurren, 18:00-18:30.

Larunbatetan: urriaren 9tik aurrera, Ernest Lluch, 10:30-11:00.

### *Zeu irakurle, gu kontalari*

*Zeu irakurle, gu kontalari* irakurzaletasuna bultzatzeko xedea du. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurrei zuzendutako jarduera da. Haurrek irakurtzeko aukera izango dute, baita ipuinak, asmakizunak, txisteak eta beste kontu batzuk entzuteko ere. Hori guztia euskaraz eta giro goxoan.

*Zeu irakurle, gu kontalari* jardueran, 6 eta 8 urte bitarteko haurrek irakurketara modu atseginean hurbiltzeko aukera izango dute, Lur Korta taldearen eskutik.

Doan izango da eta izena ematea beharrezkoa da. Taldeak txikiak izango dira eta heldurik gabekoak.

Astero egingo den ekintza izango da, Loiola eta Amundarain Mediatekan (Martutene) izan ezik:

Astelehena: 18:00 urriaren 4tik aurrera, Haur Liburtegi Nagusia (Parte Zaharra), Ernest Lluch (Amara), Intxaurreondo.

Asteartea: 18:00 urriaren 5etik aurrera, Tomasene (Alza).

Asteazkena: 18:00 urriaren 6tik aurrera, Okendo (Gros) y Aiete

16:45 urriaren 6tik aurrera, Amundarain Mediateka (Martutene hamabostero)

Osteguna: 18:00 urriaren 7tik aurrera, Egia ; Loiola 18:00 urriaren 14 tik aurrera (hamabostero)

Ostirala: 18:00 urriaren 1etik aurrera, Lugaritz